

Jatorrizkoaren izenburua: Augustin et la baleine siffleuse.

Egilea: Céline Laurent-Santran.



Pare bat datu interesgarri:

Ingeleseko irakaslea eta itzultzailea. Haur eta gazte literaturako idazlea ingelesez eta frantsesez. Leloa: «Ametsak badituzu, geldigaitza zara!».

Adin tartea: 8-11 urte.

Denbora: 2 minutu.

Gaia: «Abentura eta ikerketa».

URLa: [Augustin et la baleine siffleuse par Céline Santran, histoire jeunesse en ligne - Short Édition](#)

Agustin eta balea txistularia

Agustin oso mutiko azkarra zen. Bederatzi urte bete zituenerako asmatuak zituen jada angurriak husteko makina, bakarrik idazten zuen bolaluma eta uso mezularientzako motxila.

Goiz batean, Agustin idazmahaian marrazten ari zela, haren ama, Eugenia, agertu zitzaion gelan:

—Agustin utzi zirriborro horiek, hartu txankletak eta betaurrekoak; hondartzara goaz, bazkaltzera!

Agustinek bekainak zimurtu eta kexatu egin zen:

—Hasteko, ez dira zirriborroak; nire suziri intergalaktikoaren plano sekretuak dira, eta jarraitzeko: ez dut irteteko gogorik!

—Baina, Agustin, igandea da, eguraldi bikaina egiten du, haize pixka bat hartu behar duzu!

Agustinengana gerturatu, eta eskua buruaren gainetik pasa zion amak:

—Bestela, gehiegi pentsatzen baduzu, burua berotuko zaizu, eta, azkenean, lehertu egingo da! Gainera, zure postre gogokoena prestatu dut.

—Azenario tarta jengibrearekin? —galdetu zuen Agustinek—, larde jario.

—Kanela pixka batekin, zuri gustatzen zaizun moduan! —esan zuen Eugeniak—. Ea, goazen, primeran pasatuko dugu!

Familia osoa hondartzara iritsi zenean, Agustin eguzkitako handiaren itzalean eroso jarri zen. Hasteko, tipula zaporeko patata frijituei heldu zien, eta ziztu bizian irentsi zituen.

—Ez jan hain azkar —abisatu zion Eugeniak—, digestiorako oso txarra da eta!

—Bai, baina mundialak daude! —erantzun zion Agustinek, ahoa beteta.

Gero, arrautza egosi bat hartu, eta gatz eta piperbeltz pixka bat bota zizkion. Baina, bat-batean, Agustinek piperrontzia eskuan zeukala, geldi-geldi geratu zen: zarata arraro bat aditu zuen itxaso aldean, tunel baten barrutik zetorren sirena hots motela zirudien.

Zarata itsaso zabaletik zetorrela zirudien, eta mamut gosetu baten abiaduran hurbiltzen ari zen.

Ziztu bizian pentsatzen ohituta zegoenez, Agustinek ez zuen denbora asko behar izan gertatzen ari zena ulertzeko. Begiak arranpalo, oihu egin zuen:

—Aaaaaaaaaa!!! Balea txistularia da! Irentsi egingo gai...

Agustinek ez zuen esaldia amaitzeko astirik ere izan, balea erraldoia uretatik atera eta Agustin eta bere familia irentsi zituen, suziri baten abiaduran itsasoaren barnera itzuli aurretik.

—Ai! Ai! Ai! Oso ilun dago! —esan zuen Agatak, Agustinen arreba txikiak—. Aj! Eta usain txarra dago! Non demontre gaude?

—Balea txistulariaren sabelean! —erantzun zuen Agustinek—, piperrontzia oraindik eskuan.

—Baina, baina..., ezinezkoa da! —sekulako garrasia egin zuen Eugeniak, eta balearen sabela dardarka hasi zen—. Agustin, zuri beti bururatzten zaizkizu ideia bikainak, hauxe duzu egokiera hemendik aterako gaituen zerbait asmatzeko!

—Ba... ez dakit... ondo pentsatu behar dut... Oraindik ez ditut bukatu suziri intergalaktikoaren planoak... Maionesazko erregairako bulkagailua falta dut... Ai! Gelatinazko bola-jaurtigailua ekarri izan banu, baliagarria izan zitekeen... Ea, pentsa dezagun...

—Pentsatu, bai, baina, azkar!!! —garrasi egin zion Agatak.

—Ilunpetan ez da erraza! —kexatu zen Agustin—, esku artean zuen piperrontzia astinduz.

Balearen sabela mugitzen hasi zen, eta Agustinen begirada segituan argitu zen!

—Bai, noski! Piperbeltza! Hori da! Piperbeltzak eztarria narritatu, sudurrean azkura eragin eta... doministikua eragiten du! Ea! Kontuz! —esan zuen Agustinek— presta zaitezte sekulako hegaldirako!

Mutikoa balearen ahorraino igo zen haztamuka, geratzen zitzaion piperbeltza balearen sudurrera zeramaten bi tuneletatik ahalik eta hurbilen hustu, eta ziztu bizian jaitsi zen gorputza irristatzen utziz.

Balea berehala asaldatu zen, arnasestuka hasi, eta, azkenean, elefante talde marrantatu baten indarrarekin egin zuen doministiku.

Agustin, arreba txikia eta gurasoak urrutira bota zituen. Hondartzan lurreratu ziren, sudurra harean sartuta, guztiz zorabiatuta, baina aske!

—Primeran Agustin! —oihu egin zuen Eugeniak— besarkada bat emateko altxatzen zelarik. Lortu duzu! Ikusten? Batzuetan ideia sinpleenak izaten dira onenak! Hemendik aurrera, beti eramango dugu piperbeltz pixka bat poltsikoan, badaezpada!

Jatorrizkoaren izenburua: Les nuits de pas-lunes.

Egilea: Svetlana Kirilina.



Pare bat datu interesgarri:

Errusian jaio zen 1986an. Bederatzi urte zituenean, Frantziara joan zen bizitzera eta hizkuntza ikasi behar izan zuen. Gauzak horrela, hitz berri guztiak idazten hasi zen. Urteak igaro ahala, hitz solteekin hasi eta gero, ipuinak eta kontakizunak idazten jarraitu zuen, eta horiek idazten hasi zenetik, ezin izan du gelditu.

Adin tartea: 8-11 urte.

Denbora: Minutu bat.

Gaiak: «Alegiazko izaki fantastikoak, «abentura eta ikerketa» eta «kondaira».

URLa: [Les nuits de pas-lunes par Svetlana Kirilina, histoire jeunesse en ligne - Short Édition](#)

Ilargirik gabeko gauak

Ziguinginoek arau bat zuten, eta denek errespetatzen zuten: ilargirik gabeko gauetan, inork ez zituen lau oinak kalean ipintzen.

Bitxi samarrak ziren gau horiek, zeruan zazpi ilargi egonda, beti zegoelako distiratzten zuen ilargi bat. Baina, batzuetan, gaua erabat iluna zen, eta, orduan, ziguingino bakar bat ere ez zen kalera irteten ausartzen.

Sinesmen zahar bat zen, kondaira zaharrenak bezain zaharra; ziguinginoek begi askoz gehiago eta hanka gutxitxoago zituzten garaikoa. Tea limoiarekin edo koko-gailetak ezagutzen ez zituzten garaikoa. Oso garai zaharrekoa esan nahi dut!

Ziguinginoek ez zuten jakin-min handirik. Erosotasuna maite zuten; euren denbora-pasa gustukoena txokolate katilukada bat kremazko pastel handi batekin jatea zen. Gustuko zuten lau oinak su-ontziaren azpian berotu eta patxada handiz egotea. Ilargirik gabeko gauetan, beraz, ezta pentsatu ere kanpora ateratzea!

Ziguinginoek ez zuten jakin-min handirik, ez horixe. Baina, noizean behin, gainerakoek baino jakin-min handiagoa zuen bat sortzen zen. Orokorrean, era horretako ziguinginoak esploratzaileak izaten ziren eta kultura berriak ezagutzera joaten ziren. Beno, gehienetan urrundik begiratu baino ez zuten egiten, espazio ontziak lurreratzen ikusten zituzten, kolonoak ateratzen ikusten zituzten, pare bat bandera landatzen zituzten eta, gero, alde egiten zuten. Bitxia eman badezake ere, inor ez zen planeta hartan geratzen.

Eta, halako batean, Fredoline ziguinginoak, jakin-minez irrikan, ilargirik gabeko gau batean irtetea erabaki zuen. Bi zapata pareak ipini, bufanda lepoan bildu, jertsea jantzi eta atea ireki zuen. Ez zuen auzoa inoiz hain isilik, lasai eta hutsik ikusi. Ez zituen inoiz hainbeste leiho itxi eta argi itzali ikusi. Ez zituen inoiz zeruan hainbeste izar ikusi.

Fredoline kaleetan barrena noraezean ibili zen, sudurra zerurantz altxatuta. Ezin zuen ulertu zergatik geratu behar ziren etxean nahitaez. Hain ziren ederrak ilargirik gabeko gauak!

Eta, bat-batean, ulertu zuen. Okerreko pausoa eman zuen, ez zuen espaloia zapaldu, irristatu, zuhaitz baten aurka jo eta koko bat erori zitzaion burura. Zorabiatuta, eseri, burua astindu eta ideia guztiak bere lekuan jarri zituen.

Egun hartatik aurrera, Fredolinek ez zuen inoiz gehiago ilargirik gabeko gauetan oinik kalean ipini. Koskor batekin bazuen nahikoa eta sobera!

Jatorrizkoaren izenburua: Un petit creux.

Egilea: Blandine Butelle.



Pare bat datu interesgarri:

Irakurle amorratua txikitatik. Hamabi urte zituela eleberri laburrak idazten hasi zen. Gero, letretako ikasketak egin zituen, eta, amaitzean, haur eta gazte literatura zein helduen literatura idatzi du. Egun, Frantzia iparraldeko Nord-Pas-de-Calais herriko irakaslea da, eta irakurtzeko eta idazteko grina ikasleei helarazten saiatzen da.

Adin tartea: 6-8 eta 8-11 urte bitartean.

Denbora: Minutu bat.

Gaiak: «Alegiazko izaki fantastikoak», «horrelakoa da bizitza!» eta «umorea».

URLa: [Un petit creux par Blandine Butelle, histoire jeunesse en ligne - Short Édition](#)

Txikikeria bat...

Astea gaizki hasi dudala esan daiteke: bizitzan lehenengoz, eskolako zuzendariak deitu dit. Orain, korridorean nago, aitaren zain. Azkenean, iritsi da.

—Ondo al zaude, maitea? —galdetu dit larrituta.

Burua astindu dut. Ni nahiko ondo nago. Gurrutxaga irakasleari galdetu beharko...

Zuzendariak bulegora sartzeko esan digu. Aita segituan hasi da hitz egiten:

—Lehenik eta behin, esan behar dizut damu dudala gertatutakoa...

Zuzendariak berehala moztu dio:

—Hala espero dut, damututa egotea! Zu, eta batez ere, Karmele bera.

Zorrotz begiratu dit. Buruarekin baiezkua egin, eta esan diot:

—Bai, noski! Asko sentitzen dut, bene-benetan.

—Azalduko al didazu zer gertatu den? —galdetu dit zuzendariak.

Arnasa sakon hartu dut hitz egiten hasi aurretik:

—Jolasgaraia eta gero izan da. Gose handia nuen... Gurrutxaga irakaslea ilararen ondotik pasatu da, eta orduan...

—Kosk egin diozu! —moztu dit zuzendariak.

—Hori da.



Aitak eztarria garbitu du:

—Onartu beharra daukat goizean Karmeleri hamaiketakoa ematea ahaztu zaidala... Hozkailuan geratu da. Zer moduz dago Gurrutxaga irakaslea?

—Bere bizitza ez dago arriskuan —erantzun dio zuzendariak—. Odol transfusio bat aski izan da, sendatu beharko luke.

—Ondo da —erantzun dio aitak—. Espero dut laster lanera itzultzeko moduan egotea.

—Ez dut uste Gurrutxaga irakaslea eskola honetara itzultzeko prest egongo denik. Zure alabak muga gainditu du.

Aita muturtu egin da:

—Ez du maltzurkeriaz egin. Txikikeria bat izan da...

Baina, zuzendaria ez omen dago ados esandakoarekin:

—Irakasleak ez daude hemen kosk egin diezaieten!

—Ados nago —erantzun dio aitak—, baina Karmelek ez du osorik jan.

Zuzendariak ufa egin du:

—Hala da, bai. Gurrutxagak Lertxundi andre gajoak baino zorte hobea izan du...

Izan ere, Lertxundiren erruagatik bidali zuten nire lagun Lulu eskolatik, iaz. Maltzur jaun-andreen errua izan zen batez ere, Luluren gurasoena. Lulu gizen samar zegoela iruditzen zitzairen, eta dieta egitera behartu zuten. Halako batean, burua galdu zuen eta maistra jan zuen.

—Karmele kanporatuko duzu? —galdetu du aitak.

Zuzendariak burua astindu eta esan du:

—Oraingoan Karmelek abisua besterik ez du jasoko, baina, hurrengoan, erruki gutxiago izango dut.

—Jakina —erantzun dio aitak—. Ikusi arte, zuzendari andrea.

—Agur, Drakula jauna.

Jatorrizkoaren izenburua: La Boîte à rires.

Egilea: Pascale Dehoux.



Pare bat datu interesgarri:

1964an jaio zen. Txikitatik amona grekoaren kontakizunak entzun zituen eta hitzen magiaz ohartu zen, hitzak amen batean jendea edonora eramateko gai baitira. Harrezkero, kantatu, ipuinak irakurri eta ipuinak idazten ditu, jendeak bidaia dezan. Katuak maitatu eta loreak hazteaz gain, Pascale hezitzailea da, eta hezkuntza-premia bereziak

dituzten haurrekin egiten du lan.

Adin tartea: 8-11 urte.

Denbora: Minutu bat.

Gaia: «Umorea».

URLa: [La Boîte à rires par Pascale Dehoux, histoire jeunesse en ligne - Short Édition](#)

Barre egiteko kaxa

Eztarriarekin egiten dugu barre, bai. Baina ez dakigu benetan barrea nondik datorren.

Nik uste dut barre-kaxa bat daukagula sabelaren sakonean, epelean eta ondo ezkutaturik. Bertan gordetzen dira dozenaka barre-argara. Sabel handia duten pertsonak barre-kaxa ere handia dute. Sabela txikia dutenek, aldiz, bizpahiru barre-argara egiteko baino ez dira gai. Argi dago sabela laua duten pertsonak aire gutxiago dutela barrez lehertzeko. Argalak dira, eta ez dira inoiz barrez eztanda egiten hasiko.

Barrea ez tul alai bat bezalakoa da. Bat-batean igotzen da sabeletik, eta ahotik irteten da astinaldi txikitan. Alde bakarra dute: barrea ez da gaixotasun bat.

Inurriek barre egiten al dute? Seguru asko bai, baina ezin ditugu entzun, haien tamainari dagokion barre txiki-txikia dutelako. Ziur nago inurri bat barre-algaraka hasten denean zorrientzat ikaragarria izango dela eta belarriak estali behar izango dituztela. Elefante batek barre egiten duenean orro egiten duela esan ohi da, ateratzen duen soinu zalapartagatik.

Bokalak behar ditugu barre egiteko: iji-iji, aja-aja, kar-kar. Ezin da bokalik gabe egin barre: kr-kr, tx-tx, pz-pz..., ezinezkoa da.

Zenbat eta barre gehiago egin, orduan eta gehiago betetzen zaigu barre-kaxa. Beste batzuekin barre egiten dugunean, haien barrea ere jasotzen dugu, eta horrek aberastu egiten du gure «barreteka». Barreteka burmuinean gorde ditzakegun txantxen biblioteka da.

Batzuek gorputza barrez beteta dute, eta horrexegatik, pailazoak izatera behartuta daude. Horrela, haien gehiegizko alaitasuna husten dute aldizka, gainerakoei barre eragiten dieten bitartean.

Bitxiena zera da, barrez lehertu, zatitu, urratu eta barrez ito eta barrez eztanda egin dezakegula, inolako esfortzurik gabe.

Eta zoroena, nahi dugun guztietan barrez esteak bota ditzakegula.

Jatorrizkoaren izenburua: Disparition.

Egilea: Pascale Dehoux.



Pare bat datu interesgarri:

1964an jaio zen. Txikitatik amona grekoaren kontakizunak entzun zituen eta hitzen magiaz ohartu zen, hitzak amen batean jendea edonora eramateko gai baitira. Harrezkero, kantatu, ipuinak irakurri eta ipuinak idazten ditu, jendeak bidaia dezan. Katuak maitatu eta loreak hazteaz gain, Pascale hezitzailea da, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrekin egiten du lan.

Adin tartea: 8-11 eta 11-14 urte bitartean.

Denbora: Minutu bat.

Gaia: «Horrelakoa da bizitza!» eta «umorea».

URLa: [Disparition par Pascale Dehoux, histoire jeunesse en ligne - Short Édition](#)

Desagertzea

Garbigailuaren danborra irekitzean, Timek ez zekien egungo igarkizunik handienetako bati aurre egin beharko zionik. Hamabi urte zituen, eta ez zen oso trebea garbiketa kontuetan. Timek zientzia maite zuen. Beraz, arropa zikina gelako txoko batean pilatu baino ez zuen egiten, kirats garratza darion eskultura bigun bat osatuz. Nolanahi ere, arropa pila hura desagertu egiten zen, amaren sorginkeria baten bidez.

Asteazken goiz batean, Timek armairua ireki eta galtzerdi garbirik ez zuela konturatu zen. Gurasoak lanean zeudenez, bakarrik moldatu behar izan zuen. Ezta pentsatu ere oinetako berriak galtzerdirik gabe janztea! Berehala, urpekaritzako maskara eta hodi bat hartu, eta arropa zikinen pilan murgildu zen bizirik leudekeen galtzerdien bila. Bost galtzerdi-pare berreskuratu zituen. Galtzerdiek, zikinkeriatatik apur bat gogortuta, jatorrizko kolorea gordetzen zuten oraindik ere. Tim garbigailurantz joan zen eta haren ahotzarrera bota zituen. Ziurrenik, programa laburra nahikoa izango zen berriro ere jantzi ahal izateko. Botoi haiek erabiltzen zituen lehen aldia zen, eta ez zituen makina beldurgarri haien maltzurkeriak ezagutzen.

Hogei minutuko zurrunbiloa eta gero, ematen zuen zikloa amaituta zegoela. Gure heroi aztoratuak esku urduria piztiaren aho bustian sartu zuen. Eta, orduan, sinestezina bazirudien ere, zortzi galtzerdi baino ez zituen aurkitu. Garbigailuan bilaketa sakona egin arren, ez aitak, ez lagunek, ez Wikipediak ezingo zioten azaldu zer demontre gertatu zen galtzerdi desagertuekin.

—Big Bangarena baino misterio handiagoa!!! —barre egin zuen amak etxera itzultzean—.
Baleki gazteak, baleza zaharrak.